

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2020 000001045

Espediente-zenbakia: 2020/IDA_DEK0549**Espediente zk.:** IDA_DEK_0549;95-PRE/20**Xedea**

Plastikozko eskularruak hornitzeko kontratua esleitzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortu dauen egoeraren aurrean, Lehendakariak, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretua emon eban, Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana-Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi zuzentzeko eskumenak beregatzeko.

Bigarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisia kudeatzeko Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zan.

Hirugarrena: 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, COVID-19ak sortutako osasun egoera kudeatzeko, Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren eta Alarma Egoera ezartzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, emergentzia egoera aldarrikatzea erabagi zan, onartutako Alarma Egoerak iraun bitarteko eraginagaz.

Laugarrena: COVID-19ak sortutako osasun krisiari aurre egiteko, baharrezkoa da, emergentziaz, maskara kirurgikoen hornidura kontratatzea.

Hori horrela, FRUITUAK AMALUR BARAZKIAK- NOMAN HUSSAIN- X9680709-D enpresaren 2020-04-20 datako 0061 zenbakidun 60,00 euroko faktorea aurkeztu dau Udal Arrisku Teknikariak.

Argudioak

Lehenengoa: 2019ko martxoaren 24ko 816 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez aldarrikatutako Emergentzia egoerak, besteak beste, kontratazinoan dauka eragina, beti be COVIK-19ak sortutako egoeragaz lotura zuzena daukeen kasuetan.

**Sinadurea eta data**

Eta esleipen honegaz, COVID-19ak sortutako egoerari aurre egiteko, behar-beharrezkoa dan **3000** unitate plastikozko eskularru hornidura kontratatu gura da, **Arrisku teknikariaren 2020-04-24ko txostenean agertu bezala.**

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 120. artikulua arabera, emergentzia egoera beharrezkoak diran kontratazinoak egin ahal izateko, ez da beharrezkoa kontratazino espedientea izapidetzea, ezta kreditu nahikoa izatea.

Eta kontratuaren exekuzinoa hasteko epea, ezingo dau izan hilabete baino handiagoa.

Hirugarrena: Esleipena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erakunde Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.m artikulua eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, kontratua esleitzeko ahalmena alkateari jagoko.

ERABAKIA

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta honako hau erabaki dau Alkatetzak:

LEHENENGOA: **3000** unitate plastikozko eskularru emoteko hornidura kontratua, emergentziaz, X-9680709-D IFZ zenbakidun **NOMAN HUSSAIN –FRUITUAK AMALUR BARAZKIAK** enpreari esleitzea, **49,59** eurotan **BEZaz** kanpo, (**BEZari** jagokoz zenbatekoa: **10,41** euro). **DANATARA:** **60,00** euro eta esleipendunak aurkeztutako faktureagaz bat.

BIGARRENA: **60,00** eurotako gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa ez dagoenez, erabagi hau hartzen danean, jagokoz kreditu zuzkidura egiteko agindua emotea Ekonomia Sailari.

HIRUGARRENA: Esleipendunari kontratua berehala exekutatzeko agindua emotea eta, ohartarazotea, kontratuaren exekuzinoa erabagi honen jakinarazpena jaso eta gehieneko hilabeteko epean hasiko ez baleu, esleipena bertan behera geratuko dala.

BOSGARRENA: Esleipendunari, lehiatzaileari, kontu hartzaileari eta diruzainari erabagia jakinarazotea eta kontratugilearen profilean argitaratzea.

SEIGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.



Alarma egoera dela eta, erabaki honek eragina izango du apirilaren 1eko 2020/907 Alkatetza Dekretuaren arabera eta martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. Xedapen Gehigarriaren arabera.

Debido al estado de alarma, esta resolución tiene los efectos contemplados en el Decreto de Alcaldía 2020/907 de 1 de abril y en la Disposición Adicional 3ª del Real Decreto 463/2020 de 14 de marzo.

Oharra: sinadurea eta datea orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E4000414090014R5L0W7S9H7

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/04/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/04/2020
10:17:28

EXPEDIENTE ::
2020IDA_DEK0549

Fecha: 24/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

